

# UDALBILTZA<sup>®</sup>

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK 2001



EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

## **HIZKUNTZEN URTE EUROPEARRA**

**2001eko apirilaren 6an**

UDALBILTZAK Hizkuntzen Urte Europearrean, bere kezka adierazi nahi du Nafarroan euskarak eta euskal kulturak bizi duten egoeraren haurrean.

UDALBILTZAK Hizkuntzen Urte Europearrean, bere kezka adierazi nahi du Nafarroan euskarak eta euskal kulturak bizi duten egoeraren haurrean:

1. Euskara milaka urtetan zehar guregana belaunaldiz belaunaldi iritsi den ondarea dugu. European ezagutzen den zaharrena, euskaldunen hizkuntza propioa, eta Euskal Herriko hiritar denen kultur ondore berezia.
2. Hizkuntza guztiak dira kultur aniztasunaren adierazle. Gainera, gizakiok elkarrekin komunikatzeko dugun tresna nagusi dira hizkuntzak. Horrexegatik, Herri Aginte demokratikoen oinarrizko erantzukizuna hiritarren hizkuntza eskubideak zaintzea eta babestea da eta, batez ere, hizkuntza gutxituen aldeko politika sustatzea. Euskal Herrian euskara da egoerarik ahulenean dagoena, gaztelaniarekin eta frantsesarekin konparatuz gero, eta, beraz, Herri Aginteen ahalegin berezia sor zaio euskarari bere garapenerako. Borondatez ikasi eta erabili nahi duten hiritar guztien hizkuntza eskubideak babestu eta lagundu behar direlako.
3. Era honetan, Nafarroako Gobernu agintarien euskararen normalizazioaren aurkako erabakiak kezka eta nahigabe handiz jaso ditugu. Europako Hizkuntza Eskubideen Adierazpenaren aurka ez ezik, Nafarroako bertako Euskararen Legearen aurka jotzen duelako Nafarroako Gobernuak. Hizkuntza komunitate bereko kide izateko eskubidea, euskararen erabilera normalizatu bat egiteko aukera, eta euskaraz sortzen eta garatzen diren kultura adierazpideak sustatzeko eskubideak ukatzen zaizkielako Nafarroako hiritarrei.

4. Bertako kulturaren aurka aritzeaz gain, Nafarroako hiritarren aurka jotzen dute erabaki horiekin, elebitasunaren eta elkarbizitzaren alde behin baino gehiagotan apustu egin duen gizartean zatiketa eta haustura politikoa sortu nahian.

5. Gizarte eragileei, erakundeei eta alderdi politiko guztiei eskatzen diegu bereziki Nafarroako eta Iparraldeko hiritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta horretarako beharrezkoak diren neurri eraginkorrak hartzea; euskararen normalizazioa lortzeko bidean benetako urratsak ematea, bere irakaskintza bermatu eta bere erabilpena sustatzea.

6. Hiritar eta erakunde guztiei dei egiten diegu euskararen eta euskal kulturaren aldeko apustua egin dezaten. Milurteko berrian, mundu globalizatuan hizkuntza eta kultura guztiek izan behar dute leku. Gureak, euskarak, ere bai. Hizkuntza eta kultura aniztasuna denontzat baita aberasgarri.

7. Euskara, Euskal Herriko hiritarren ondare propioa, denona da eta denon laguntza behar du zaintzeko, sustatzeko eta garatzeko.

Iruñean, 2001.ko apirilaren 6an

## **ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ALDERDI POPULARRAREN JARRERAREN AURREAN**

**2001. eko apirilaren 4ean**

UDALBILTZAK PPri euskal hiritargoa mehatxatu, manipulatu eta gezurrak esan ez dezan exijitzen dion Adierazpen Instituzionala.

UDALBILTZAren Zuzendaritza Batzordearen lehendakaria eta Beasaingo alkatea, Jon JAUREGIk, atzo, Mayor Oreja jaunak eta PPko Alkateen Batzordeak egin zituzten adierazpenen aurrean, esanez, UDALBILTZAK euskal hiritargoa meneratu eta Udalek desagerrarazi nahi duela, zera adierazi nahi du:

1.- Mayor Orejak eta PPk euskal hiritargoari UDALBILTZAren naturari buruz mehatxatzen, manipulatzeko eta gezurrak esateari uztea exijitzen diegu. UDALBILTZA erakunde zilegia eta demokratiko bat del a berretsi nahi dugu, bere oinarriak atxikipen libre eta hiritar guztien giza eskubideen errespetua eta defentsa direlarik.

2.- UDALBILTZAren parte hartzen dugun alkate eta zinegotziek hiritarrek hautatu gaituzte demokratikoki baita ere. Beraz, adierazpen horiek, hiritar hauengan erabateko errespetu eza eta mesprezua adierazten dute.

3.- UDALBILTZAK uka ezina den errealitate bati erantzun egoki bat eman nahi dio: hau da, Euskal Herria egon badagoela eta hiritar gehiengo batek harremanetan jarri, elkar ezagutu eta amankomunean duen identitatea bultzatu nahi duela, beti ere, elkar errespetatuz eta askatasun osoz. Guzti hori, Europa eta gizarte geroz eta zabalago batetan esparru berrien aurrean eta estatu artifizialen mugaz gainetik.

4.- UDALBILTZAK galdetu nahi du ia, adibidez, Iparraldean eta Nafarroan euskarari laguntzea hain zilegitasun-gabekoa eta legala ote den Mayor Oreja eta PPrentzat. Zeri diote hainbeste beldur Mayor Orejak eta PPk? Beraien jarrera beraien benetako natura azaltzen dute: hau da, gizarte honetan abian izan diren aurrerakuntzak eta kontsensuak murriztu nahi dutela, giza zatiketa artifizial bat sortuz.

5.- UDALBILTZAK eraiki egin nahi du, eta ezerez ez suntsitu ordea.

UDALBILTZAK gaitzetsi egin du eta beti gaitzetsiko du edozein giza-  
eskubide baten bortxaketa. Su-etenaren apurketa ETaren ardura izan  
zen. Dena den, Mayor Orejak azaldu beharko zuen zenbat eta zenbat  
ahalegin egin zituen prozesu hori amaitu eta euskal gizartearen  
itxaropena itotzeko, beste batzuk bake, distentsio eta euskal hiritar  
guztientzako askatasun prozesu hori sendotzeko ahalegin guztiak  
egin genituenean.

Euskal Herrian, 2001ko apirilaren 4ean